

Bazkide gakoek proiektuaren **hedapena, eraginkortasuna eta eskalagarritasuna** ahalbidetzen dute. Sozio gakoek funtsezko zeregina dute BiteGuard proiektuaren garapenean eta funtzionamendu egokian. Proiektu honek hainbat eragilerekin lankidetzan behar du, produktuaren kalitatea, segurtasuna eta merkaturatzea bermatzeko.

Lehenik eta behin, **material odontologikoen hornitzaileak** dira sozio garrantzitsuenetakoak. Haien bidez, aho-babesleak fabrikatzeko beharrezkoak diren material seguru eta biobateragarriak lortzen dira, kalitate estandarrak betez.

Bestalde, **hortz-protiesietako teknikariak edo sektoreko profesionalak** ere sozio gakoak dira, ezagutza teknikoa partekatzeko, prozesuak hobetzeko eta produktuaren kalitatea bermatzeko.

Kirol-klubak, ikastetxeak eta kirol-eskolak beste sozio estrategiko batzuk dira. Lankidetzan horien bidez, proiektuak publiko objektibora zuzenean iristeko aukera du, eta aldi berean, prebentzioari eta aho-osasunari buruzko heziketa sustatzen da.

Halaber, **garraio eta banaketa-enpresak** beharrezkoak dira online egindako eskaerak bezeroengana modu eraginkorrean iristeko, bai etxera bidaltzeko, bai klubetara banatzeko.

Azkenik, **webgunearen garapenean eta ordainketa-sistemetan laguntzen duten zerbitzu teknologikoak** sozio gakoak izango dira salmenta onlinearen funtzionamendu egokia bermatzeko.

Sozio horien bidez, BiteGuard-ek **kalitatezko produktua, merkaturatze eraginkorra eta hazteko aukera errealizango** ditu.

1. Kirol-klubak

Kirol-klubak BITEGUARDen bazkide estrategiko garrantzitsuenetakoak dira, **kirolariekin harreman zuzena** izateko aukera ematen dutelako, batez ere kontaktuko kirolak egiten dituzten gazteekin. Klubekin lankidetzan:

- Produktua zuzenean aurkeztu daiteke kirolariei eta familiei.
- Taldeentzako deskontuak edo akordio bereziak eskaini daitezke.
- Konfiantza sortzen da, klubak produktuaren gomendatzaile gisa jarduten duelako.

Horrek salmenta errazteaz gain, aho-babesleen erabileraren garrantzia zabaltzea ere ahalbidetzen du.

2. Ikastetxeak eta institutuak

Ikastetxeak eta institutuak bazkide giltzarriak dira **ikuspegi hezitzaile eta prebentibotik**. Eskola-kirolaren bidez:

- Aho-babesleen erabilera txikitatik sustatzen da.
- Ikasleen eta familien artean aho-osasunaren inguruko kontzientziazioa lantzen da.

- Prebentzioari buruzko hitzaldi edo informazio-kanpainak egin daitezke.

Lankidetzaren honek BITEGUARD ez du soilik enpresa gisa kokatzen, baizik eta **osasunarekin konprometitutako proiektu** gisa ere bai.

3. Kirol-eskolak eta akademiak

Kirol-eskolak eta akademiak gazte kirolarien prestakuntzan espezializatuta daude, eta horregatik **segurtasuna eta ongizatea** lehenesten dituzte. Erakunde hauekin:

- Aho-babesle pertsonalizatuak derrigorrezko edo gomendatutako ekipamendu gisa sar daitezke.
- Taldeko eskaerak edo pack bereziak antola daitezke.
- Produktua euren segurtasun-protokoloetan txertatu daiteke.

Horrek proiektuaren irudi profesionala eta fidagarritasuna indartzen ditu.

4. Material-hornitzaileak eta protesikoak

Material-hornitzaileak ezinbesteko bazkideak dira aho-babesleen **kalitatea eta segurtasuna** bermatzeko. Haien bidez:

- Material odontologiko biobateragarriak eta homologatuak eskuratzen dira.
- Fabrikazio-prozesu fidagarria eta segurua bermatzen da.
- Produktuaren kalitate-estandarrak mantentzen dira.

Bazkide hauek funtsezkoak dira azken produktuaren segurtasunerako.

5. Logistika- eta banaketa-bazkideak

Logistika- eta banaketa-arduradunek produktuak **bezeroarengana garaiz eta egoera onean** iristea ahalbidetzen dute. Haien lana garrantzitsua da:

- Online egindako eskaerak etxera bidaltzeko.
- Klub, ikastetxe edo akademietara banaketa errazteko.
- Bezeroaren esperientzia hobetzeko.

Horrek proiektuaren profesionaltasuna handitzen du.

6. Osasun edo kirol-arloko profesionalak

Etorkizunean, entrenatzaileak, hartz-osasunarekin lotutako profesionalak edo kirol-federazioak bazkide garrantzitsu bihur daitezke. Haien bidez:

- Produktuaren sinesgarritasuna handitzen da.
- Gomendio profesionalak lortzen dira.
- Prebentzioaren eta aho-osasunaren mezua indartzen da.

Bazkide hauek BITEGUARDen balio soziala eta osasunarekiko konpromisoa azpimarratzen dute.